

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Irribarre egin gabe irabazterik ez dago-eta

Arrakasta izan du Arnaldo Otegi Logroñoko ziegatik euskal jendartearentzat asmatu-
agurak (hain arrakastatsu, ezen Pablo Igle-
siasek berak bere egin duen “Irribarre egin,
irabaziko dugu-eta” hori). Baina onar deza-
gun azken bolada honetan ezkerreko abertza-
leen artean argi izpiak/aukerak gidari hartzen dituztenen
irribarre baina, alde ilunak/gabeziak lehenesten dituzte-
nen tristurak gailentzen ari direla. Haserraldien marma-
rra, behintzat, ozenago entzuten da, erakargarriagoa
omen da. Hortaz, agian zertxobait gaurkotu eta zorroztu
beharko litzateke Arnaldoren lelo animosoa, eta garbi
utzi: irribarre egin gabe, irabazterik ez dago-eta. Irribarre
egin, bere zentzu zabalenean: errealitatea perspektiba lu-
zean begiratu, ilusioa landu; burua ireki; albiste onak na-
barmendu eta txarrak gerta ez daitezen etsi gabe ahale-
gintzen segitu; *guetto*etatik atera eta jendearekin
(gutarrekin eta gutarrak ez
direnekin) egon, hitz egin, ez-
tabaidatu, disfrutatu ahal ba-
da; eta noizbehinka, norbere
buruaz barre pixka bat ere
egin (autokritika sana, ale-
gia). Ibilbide orri, ekimen po-
litiko, hauteskunde emaitza
eta abarren gainetik, giza ja-
rrera xumeago hauetan as-
matu beharko du ezkerreko
mugimendu abertzaleak, au-
rrera egin nahi badu.

Adibide –adierazgarri– ba-
tzuk utzi dizkigute azken
egun hauek, eremu ezberdi-
netan. Athleticen lortutako kopak, esaterako, eztabaida bi-
txiak eragin ditu han-hemenka, giroa ozpinduz. Alde bate-
an, athleticzaleak izan ala ez, gehiago ala gutxiago
bihotzez eta sano poztu direnak. Kontrako muturrean,
«futbola, herriaren opioa» dogmari atxikiak ospakizunak
errefusatu dituztenak. Eta ustez erdian, bietatik aldendu
baina badaezpada, inor ez aztoratzearen-edo, serio eta
festatik kanpo gelditu direnak, sektore honen ordezkari
politikoak kasu. Azken emaitza: hirutik bi irribarre zipi-
tzik egin gabe.

Era berean, marka da, gero, Gasteizko jaiek zabaldutako
orbaina, non eta Nafarroarekin batera egoera politikoa eta
soziala iraultzeko aukera sendoena gorpuzten ari zen to-
kian. Istilu zehatzaz ez dago gehiago esaterik, aski ezagu-
na baita, baina geroko ondorioek eta hasierako jarrerak
presazko hausnarketa merezi dute. Izan ere, parekidetasu-

na helburu bada, ez dirudi hain gauza zaila denik adosgu-
neak bilatzea eta ahalegin horri elkarrekin ekitea. Jazota-
koak, orde, beste asmo ezkutu batzuk agerrarazi ditu: an-
tza, hainbat feministak blusa eta nesken mugimendua
ezabatu nahi dute eta, aldiz, hainbat blusa eta neskak mu-
gimendu feminista desagerrazi nahi dute, nahi den orde-
nean irakurrita. Bion kaltetan, baina bereziki guztion den
borroka ahuldurik. Tartean, EAJko alkatea, bere burua bi-
tartetari eskaintzen. Ur nahasietan beti agertu ohi da
arrantza oparoa aurreikusten duenik.

Serioagoa, gaiak hala agintzen du, presoen aferaren in-
guruan aspaldi hasitako elkar mokoka. Batzuen zein bes-
teen (guztion) grina euskal espetxeratu eta iheslariak aha-
lik eta azkarren etxera ekartzea bada, erretolika gehiegi
barnebiltzen du amnistiaren kontzeptuari buruzko ikami-
kak. Penagarria da zapore mikatz hori ongietorrietaraino
iristea. Hainbeste urtetan atzeratutako poza zapuztu,

Udakoak ikusita, Arnaldoren lelo animosoa
zertxobait moldatu beharko litzateke.
Zentzu zabalenean egin behar da irribarre:
perspektiba erabili, ilusioa landu, burua
ireki, atera, poztu, hitz egin... Edo jai dugu

epeldu edo duen garrantzirik ez emateak mixerien tamai-
naren berri ematen du, beste ezerk baino hobeto.

Askotan aipatua izan da Estatuak konponbide prozesua-
ri ezarritako blokeoak eztabaida gatazkaren ondorioetan
trabatu eta prozesu politikoa atzeratzea duela jomugan.
Bestelako helburu paralelo bat ere badu, eskema orokorra-
ri baino jende arruntari eragiten diona: etsaiari gerra psi-
kologikoa ematea, irabaztea ezinbestekoa dela barneraraz-
tea, gezurra izan arren. Dударik ez, ondorioak ditu. Esan
liteke Estatuari eta sistemari irabazi ezin izatearen hain-
baten sentsazioak ondoan dagoen beharreko lagunari ira-
bazteko gogoa ekarri duela. Eta sumindura honek bestela-
ko su txikiak piztu eta elikatzen dituela. Hortaz, hurrengo
borroka nagusia, dinamika politiko handietan baino, nor-
banakoen jarreretan dela esango nuke. Hortik hasten da
irabazteko bide bakarra. Irribarre egitetik. •